

2.- MOISES EJIPTO'N

Jakob edo Israel'ek artu ebazan Abraam'en agintzariak, baiña Jakob'en amabi semeak Jose euren arteko zala, anaia saldu egin eben eta au Ejipto'ra eroan eben ismaeldar batzuk. Ejipto'n gizon aundia izatea lortu eban gau-amesen igarle zalako. Zazpi urte ugarietako uzta onak batu eta urrengo zazpi gose-urteak asetzea lortu eban.

Gose-urte orreitan bere amaika anaiak joan jakozan gari-billa. Gero Aita be bai. Eta an asi ziran bizi izaten eta ugaritzen, antxe sortu zan Israel erri aundia.

200 urte-inguru igaro-ondoren, lanik gogorrenak egiten aspertu ziran israeldarrak eta Jainkoari oiuka bizi ziran. Giro orretan daukagu Moises'en aurrean teofanía eta Jainkoa agertzea:

- Moises! Moises!
- Emen nago!
- Entzun dot Ejipto'tik nire erriaren oiua ta garrazia..

Zoaz eta atera morroitzatik nire Erria.

Amar ondapenak jazo ziran ondoren, Faraon'ek urte-teko baimena emon egian, eta lortu eban Moises'ek erria Ejipto'tik ateratea. Azkenengo gaua gaurik larriena izan zan, aingeru iltzailleak egiptoarren semerik zarrenak ilgo ebazan gaua.

Baiña israeldarren semeak non egozan aigeruari adierazteko, oneik erail ez egizan, gau orretan izan zan pazko-gaua. Sendi bakoitzak pazko-bildotsa il eban eta onen odolagaz ate-ageak gorritu ezaugarri lez.

Eta pazko bildotsa jan eben: azi-bako ogiakaz, orretarako astirik ez egoalako, oiñetakoak jantzita bidea egiteko gertu egon daitezkan, soin-gaineko jantzia garrian lotuta bereala urteteko... eta goiz-aldian urteteko baimena etorri jaken eta urten be bai. Bildotsa izan jaken askatzaille, Kristo'ren irudi lez.

Itxas Gorria zelan igaroko ete eben larri egozan, baiña Moises'ek bere makillea eskuan ebala urak erdi bi egin

ebazan eta eurak buzti barik igaro ziran. Atzetik sartu ziran ejiptoarrak be, baiña urak alkartu ziran eta guztiak antxe ito ziran

Eldu ziran Sinai mendira eta an egin eben Jainkoa'gaz ituna: eurak amar aginduak beteko ebezan eta Jainkoa beti izango eben erriaren laguntzaille

Gogoratu daiguzan Biblian agertzen diran itunak: Lenengoa atsegin-baratzean, Andreak zapalduko eban txerrenaren burua; bigarrena uriola aundiaren ostean Noe'gaz eta bake orren ezaugarri, geiago uriolaren ez dala izango ziurtatzeko zeruan agertuko da margo guztiak daukazan arkuak; irugarren Sinai mendian. Azkenengo onek alderdi biak beartzen dauz, Jainkoa erri-laguntzaille izatera era erria amar aginduan betetera: Ni zuen Jainko eta zuek nire erri.

Baiña betiko itun barria gurea da, Kristo'gan betirako egiña.

Sinai mendiko amar aginduak edo antzekoak inguruko erri guztietan egozan.

Ez dogu aitzu bear Biblia'k agertzen dauskuna ez dala Jainkoa zelakoa dan, erriak zelakoa dala uste eban agertzen dau. Ori kontuan dala ulertu geinke Jainkoa'k ejiptoarrak zelan urpean ito ebazan. Oneik be Jainkoaren seme-alabak, ziran.

Israeldarrak sinisten eben Jainkoa zigortzaillea zan eta zerbait gauza txarra jazoten jakenean, Jainkoaren zigorra zala esaten eben beti. Baiña ori ez da orrelan. Gauzak jazo egiten dira errien artean be, baiña ez zigor lez, alan-bearrez baiño.

Jainkoa agertzeak edo teofaniak (Abraam'eri, Moises'eri...) geiago ziran eurak barruan zomatzen ebezan aginduak edo deiak, gero irudiz jantzi bear izaten ebezan besteentzat sinisgarri izateko.

OLAZAR'tar Martin'ek

ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (ogei euro) kontu onetan:

EUSKERAZALEAK

BILBAO BIZKAIA KUTXA

Bilbao, 2095 0000 7 4 20.000 8961-5

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguzu!

Ebagi orri onetan txarteltxu au eta eroan bbk'ra eta ordaindu 20 €. Ez dozu ezer be idatzi bear.

Baiña, aztu barik, esan Kutxan zeure izena eta zeure erriarena.

Eskerrik asko!